



AKTA
Udaleko Euskara Kontseilua
2021eko ekainaren 8a

BATZARKIDEAK

Mikel Uriguena, presidentea (Herriaren Eskubidea)
Neskutz Rodriguez Ormazabal, Herriaren Eskubidearen ordezkaria
Mariam Bilbatua, EH Bilduren ordezkaria
Ainhoa Ortueta, EAJren ordezkaria
Maite Euba Areitioaurtena, Udal Euskaltegiko zuzendaria
Mertxe Mujika, Abarrak AEK-ko ordezkaria
Markel Sanchez Zelaia, Berbaroko kudeatzailea
Gotzon Gomez Barrenetxea, Gerediaga elkarteko ordezkaria
Aritz Maldonado, Anbotoko ordezkaria
Aitzol Gaztanazatorre Gorritxategi
Amets Menika Bernas, euskara trebatzailea
Fernan Ruiz Larringan, euskara dinamizatzailea

IDAZKARIA

Juan Antonio Atutxa Balentziaga, euskara teknikaria

EZIN ETORRI IZANA adierazi dute:

Ane Abanzabalegi Areitio, EH Bilduren ordezkaria
Malen Urkullu Arieta-Araunabena, EAJren ordezkaria
Jessica Ruiz, PSE-EE PSOEn ordezkaria

Tokia: Berbagunea (Udal Euskaltegia)

Hasiera ordua: 18:00

Amaiera ordua: 19:00



1. Aurreko batzarreko akta onartzea

Aho batez onartu dugu maiatzaren 25eko batzarreko akta.

2. Euskararen Udal Araudia aztertzea

Tonik aurreko batzarreko ekarpenei buruzko azalpenak eman ditu. Oniritzia eman diogu ekarpenen dokumentuari eta aktari erantsiko diogu.

51. artikulutik aurrerakoak aztertzea

Zalantzak eta eztabaida sortu duten artikulua:

3.1. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana

52. artikulua: % 62,76 kendu eta "Durangoko euskaldunen gehi ia-euskaldunen kopurua, % 73 da (Eustat 2016).

54. artikulua: "Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia" kendu eta "Euskara Sustatzeko Ekintza Plana" idatzi, orain horrela du izena. Azken parrafoan, "komunikabideak eta teknologia berriak" dagoen lekuan, "hedabideak eta IKTak" idatzi.

3.3. Hizkuntza irizpideak

58. artikulua: Udaleko Sailek egiten dituzten dirulaguntza deialdiak direla eta, jasotako betebeharraren jarraipena eta betetze-maila nork egingo duen zehaztu beharko genuke (Markel). Artikuluari esaldi bat gehituko diogula adostu dugu, esaterako: "[Dagokion udaleko saila arduratuko da hizkuntza-baldintzak betetzen direla ikuskatzeaz](#)".

60. artikulua: Kirol eta gazteria arloko dirulaguntzak. Artikulua kentzearen aldekoa da Toni. Azaldu du arau zigortzailea dela eta zaila ikusten duela herrian zuzturtutako elkarte bati dirulaguntzak kentzea. Bestalde, kontraesana izango litzateke, udalak berak kontratatuta dauzkan hainbat zerbitzu (ikastaro, tailer...) gaztelaraz ematea eta herriko elkartei dirulaguntzak kentzea monitoreek eta entrenatzaileek euskara ez dakitelako. Benetako arazoa jakitea eta ez erabiltzea da.

Kirola eta gazteak funtsezko arloak dira eta udalak ezarri beharko luke nolabaiteko derrigortasuna monitore eta entrenatzaile euskaldunak izateko (Mertxe). Artikulua kendu beharrean, berridaztea (Markel, Aitzol) adostu da, "hobetsi" edo "lehenetsi" eta "jakitea eta erabiltzea" idatzita.

61. artikulua: "...euskaraz ere..." kendu eta "euskaraz edo ele bietan" idatzi.

62. artikulua: azken esaldia gehituko zaio hizkuntza-baldintzak betetzen direla ikuskatzeko.

63. artikulua: argiago idatziko da azken parrafoa eta hizkuntza-baldintzak betetzen direla ikuskatzea gehituko zaio.

64. artikulua: "...euskara hutsez joan daiteke..." barik, "euskara hutsez joango da..." idatziko da.

66. artikulua: gutxitan betetzen da hemen ezarritakoa, pleguak gaztelaraz sortu eta ez da itzulpena egiten. Baliabideak ipini beharko genituzke euskaraz egin eta batera argitaratzeko (Markel). Erabilera planean zehaztuko da zelan egin.



3.4. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren

69. artikulua: hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa gai berria da denontzat, ez da ondo ulertzen eta zalantzak sortu ditu. Tonik azaldu du, gaia: batez ere, Hirigintzarekin dago zuzenean lotuta, baina EJko Hizkuntza Politika Sailak arautu du.

72. artikulua: Durangon izango lukeen eragina neurtzeko adierazleak zehaztu beharko genituzke proiektuaren arabera, artikulua oso orokorra da eta (Markel).

3.5. Hizkuntza eskubideak

73. artikulua: Tonik azaldu du udalak berak baduela hizkuntza eskubideak urratzen direnean erantzuteko zerbitzua, baina salaketa gehienak Behatokitik heltzen zaizkigu. Artikuluan ez dago argi nork erantzungo duen, "Udala" idatzita dago, udaleko nori dagokion idaztea eskatu du Aitzolek.

4. Xedapen gehigarriak

Bigarrena: ez da betetzen (Gotzon), plangintza-aldiarekin lotu behako genuke. Horrela egitea adostu dugu.

Moldaketak zirriborroan: ekainaren 8ko batzarrean **horiz** zeuden hainbat artikulua ontzat eman ziren, horrexegatik, orain bidalitako zirriborroan kolorea kendu zaie. Batzar horretan egindako ekarpenak **urdinez** koloreztatu dira eta "Aldaketak araudian 2021-06-08" dokumentuan jaso eta bilduta daude.

Adostutakoak	- Araudia lantzeko batzarrak amaitu ditugu. Hemendik aurrerako prozedura honako hau izango da: → Aldaketak sartu (Toni) → Gainbegiratu eta ekarpenak egin, emailez bidali (denok) → Udaleko teknikariei aurkeztu ekarpenak egin ditzaten bakoitzak bere alorrean. → Araudia Herrigintza Batzordera eroan eta oniritzia eman → Plenora eroan → Uda ostean: loturak egingo ditugu araudia eta ESEPN eta Erabilera Planaren artean.
Adostekoak	- Batzarren maiztasuna; araudiak bi hilerik behin egitea zehazten du. - Kontseiluan landuko ditugun gaiak eta dinamikak.

Hurrengo batzarra: uda ostean.

Eginkizuna: Durangoko Udaleko ESEP aurkeztu eta Euskararen Udal Araudiarekin bateratzeko ahaleginak egin: Araudiko zenbait artikulua ekintza bihurtu ESEPN, betetze-mailaren arabera adierazleak identifikatu, lehentasunak jarri, e.a.